

DATU OROKORRAK

ISIN:	--
Eraketa-data:	27/10/2015
Komisioak	
Kudeaketa:	%1,36
Gordailuzaintza:	--
Hasierako inbertsioa:	--
Ondarea:	90.725.662,95
Likidazio-balioaren kalkulua:	Egunerokoa
Azken likidazio-balioa:	9,89800

ERRENDIMENDU METATUA



INBERTSIO-POLITIKA

Partaideei euren arriskuaren araberako errentagarritasuna emateko helburuz inbertituko da planaren zorroa, 2040. urtera arte. Inbertsioa dibertsifikatu egingo da mundu osoko errenta finkoko eta errenta aldakorreko aktiboen artean, inbertsioaren arloan indarrean dagoen legeriak ezarritako esparruaren barruan. Denborak aurrera egin ahala, arrisku-profila beherantz joango da. Hala, planak gero eta arrisku txikiagoa hartuko du, bazkidearen arriskuari egokitzuz joango baita.

HILEKO IRUZKINA

AEBetako Erreserba Federalak irailean interes-tasak murriztuko dituela "baiezta" du. Horrela, inflazioaren moderazioaren aurrean politika monetarioa lasaitzen ari diren banku zentralen zerrendarekin bat egingo luke. Datu ekonomikoek BPGren hedapena erakusten dute oraindik ere, batez ere zerbitzuen sektorean, manufacturatan bai baikaude zona kontraktiboan.

Abuztuko lehen egunetan arriskudun aktiboen prezioan zuzenketak izan arren, hurrengo saioak errekuperaziokoak izan dira, eta, beraz, hilabetea zeinu positiboarekin amaitu da. Hala, abuztuan AEBko burtsak % 2,28 egin du gora, Europakoak % 1,75 eta Erresuma Batukoak % 0,10. Eremu negatiboan geratu dira garatzeko bidean dauden herrialdeetakoak, % 0,66ko beherakadarekin, eta Japoniakoa, % 2,16ko beherakadarekin. Beste mugimendu nabarmena tasakurben arintzea da, datozen hilabeteetan banku zentralek murrizketen itxaropena baitute. Hileko egoera positiboa osatzeko, errenta finko pribatuko diferentzialak arindu dira, bereziki arrisku handieneko segmentuan (high yield), batez besteko historikoen azpitik argi eta garbi kotizatuz. 2 urterako bonu alemanaren BETa 14 op jaitzi da eta 10 urtekoa egonkor mantendu da. AEBn 13 urterako tasa 10 op jaitzi da. Inbertsio graduko Europako enpresen bonuen prezioak % 0,30 igo dira eta errentagarritasun handiko bonuenak % 1,17.

Errentagarritasun EUSKADIKO PENTS 2040

Hilabete 1	3 hilabete	Urtean	Azken 12 hil.
%0,95	%2,88	%8,48	%13,66

Hileko Bilakaera

	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe	Urtea
2020	%-0,98	%-5,69	%-9,21	%5,75	%4,03	%2,77	%1,52	%2,96	%-1,24	%-3,03	%8,80	%1,72	%6,20
2021	%-0,96	%1,52	%3,86	%1,71	%0,74	%1,11	%1,49	%1,52	%-2,66	%3,33	%-1,14	%2,70	%13,85
2022	%-3,57	%-3,69	%0,47	%-5,09	%-1,24	%-6,44	%6,91	%-4,97	%-5,64	%4,28	%4,95	%-4,32	%-17,85
2023	%5,65	%-1,16	%2,27	%0,64	%-0,48	%3,19	%1,16	%-1,65	%-3,29	%-1,68	%6,18	%3,78	%15,06
2024	%1,06	%2,47	%2,61	%-2,24	%1,44	%0,98	%0,99	%0,95					%8,48

HILEKO MUGIMENDUAK ETA INBERTSIO ERABAKIAK

Errenta aldakorrak portaera positiboa izan du abuztuan. Errenta aldakorrarekiko esposizioa % 56,5koa da, AEBko burtsaren (% 2,28 igo da) eta Europakoaren (% 1,75 igo da) arteko esposizio orekatua mantenduz. 2040an epemuga duen Espainiako zorrak balioa handitu du. Inbertsio-mailako eta high yield errenta finkoko zorroaren esposizioa % 5,76koa da kasu bakoitzean. Inbertsio-mailako bonuak % 0,3 igo dira eta errentagarritasun handikoak % 1,17. Guztira, plana % 0,95 igo da hilabetearen.

• POSIZIO NAGUSIAK


2024ko Uztailak 31

Posizio nagusiak	%
BO. ESTADO ESPAÑA 4,90% 400730	20,05
FU. S&P 500 MINI SEP24	17,35
etf INVESCO S&P 500 HDG	11,31
ISHARES EUR HY CORP ESG EURA	5,18
BO. ESTADO ESPAÑA 1,2% 401031	4,65
ETF.INVESCO EURO STOXX 50 UCITS EUR SCC	3,29
ISHARES EUROP CORP ESG	2,77
AC. ASML NV	2,42
FU. EUROSTOXX 50 SEP24	2,24
ETF. AMUNDI IEACS UCITS ESG	2,19


2024ko Abuztuak 31

Posizio nagusiak	%
BO. ESTADO ESPAÑA 4,90% 400730	19,74
FU. S&P 500 MINI SEP24	17,41
etf INVESCO S&P 500 HDG	11,30
ISHARES EUR HY CORP ESG EURA	5,16
BO. ESTADO ESPAÑA 1,2% 401031	4,57
ETF.INVESCO EURO STOXX 50 UCITS EUR SCC	3,30
ISHARES EUROP CORP ESG	2,74
FU. EUROSTOXX 50 SEP24	2,36
AC. ASML NV	2,28
ETF. AMUNDI IEACS UCITS ESG	2,17

• BENCHMARK - ERREFERENTZIAREN INDIZE



• ARRISKU MAILA



Kontuan hartzeko ratioak

Urteko hegazkortasuna (1)	10,56%
Aurten bueltan	8,48%
Sharpe ratioa (2)	0,14
Urtebeteko VaR 95% (3)	20,31%
Drawdown maximoa (4)	-22,90%

Loturiko arrisku nagusiak:

□ **MERKATU ARRISKUA:**

Inbertsio-fondoan likidazio-balioak gorabeherak izan ditzake prezioetan, epe labur, ertain eta luzean, eta partaideari minusbalioak eragiteko moduko hegakortasun handiko egoerak sor ditzake. Fondo misto batean, arriskuak bi aldetatik etor daitezke:

-ERRENTA FINKOA: Merkatuan interes-tasek gora eginez gero, errenta finkoko aktiboen prezioek behera egin dezakete. Muga-egunera arte geratzen den epea zenbat eta handiagoa, prezioaren jaitsierarekiko sentiberatasuna orduan eta handiagoa da.

-ERRENTA ALDAKORRA: Burtsako kotizazioen fluktuazioen ondorioz.

□ **LIKIDEZIA ARRISKUA:**

Inbertsio-fondoak iraupen mugagabearekin eratzen direnez, inbertsioa desegiteko bi era daude soilik: beste inbertsio-fondo batera intsuldatzea edo errenboltoa egitea. Fondoan likidazio-balioa egunero zehazten bada ere, gerta liteke dirua nahi denean ez berreskuratu ahal izatea eta/edo likidazio-balioan zigorra izatea, fondoaren zorroak eta aktiboek, duten ezaugarriengatik eta/edo merkatuaren egoerarengatik, zigorra jaso dutelako saltzerakoan. Likidezia ez dago bermatua. Aparteko momenturen batean, likidezia lortzea murriztua gerta daiteke, inbertitutako kapitala berreskuratzeko alde zuzenetik jakinarazi beharreko epeak egoteko aukera ere barne delarik.

□ **KREDITU ARRISKUA:**

Fondoaren kreditu-arriskua edo kontrako alderdiaren arriskua haren inbertsio-politikaren eta aktiboen menpe egongo da: jaulkitzaileak zorrak ez ordaindu ahal izateko edo ordainketetan atzeratzeko arriskua da.

Horretarako, zorroa osatzen duten aktiboak kredituen lehentasun ordenean zer kokapen duten eta zer kreditu-kalitate duten jakin behar da. Kreditu-kalitatea neurtzeko, rating-agentziek egiten duten kalifikazioa hartzen da oinarritzat.

Inbertsio-fondoek ez dute sozietate gestorearen kreditu-arriskurik, ezta sozietate merkaturatzailearenik ere, haien balantzetik kanpo dauden aktiboak dira eta.

□ **DIBISA ARRISKUA:**

Euroaz bestelako dibisetako aktiboetan egindako inbertsioek dibisa-arriskua deritzon arriskua daukate, kanbio-tasen gorabeheren ondorioz eman daitekeena.

□ **PALANKA-EFEKTUAREN ARRISKUA:**

Finantza-tresna deribatuetan (gerokoetan, aukeretan...) inbertitzen duten fondoek arrisku handiagoa izan dezakete, produktu horien arriskua dela eta, eta zorroan galerak biderkatzeko aukera izan dezakete.

□ **BESTE ARRISKU BATZUK:**

Arautu gabeko merkatuetako baloreetan inbertitzeak areagotu egiten du arriskua.

Garatzeko bidean dauden herrialdeetako baloreetan inbertitzen bada, aparteko beste arrisku bat dago tartean: herrialde-arriskua. Herrialde horretako gertaera politiko, ekonomiko eta sozialak ondorioz bertan egin diren inbertsioei eragiteko arriskua da.

● GLOSARIO

(1) Urteko hegakortasuna: Fondoaren likidazio-balioaren eguneroko gorabeheren desbideratze estandarra, urteko terminoetan adierazia.

(2) Sharpe ratioa: Arriskuari doitutako errentagarritasun-neurria ematen du. Arrisku-unitateko lortutako gehiegizko errentagarritasuna zehazten du. Fondoaren errentagarritasunaren ohiko desbideratzearen arabera neurtzen da arriskua.

(3) Urtebeteko VaR % 95: Urtebeteko epean izan litekeen gehieneko galera, % 95eko konfiantza-mailarekin.

(4) Drawdown maximoa: fondoak denboraldi batean izandako likidazio-balioaren jaitsierarik handiena. Hau da, likidazio-balio historiko maximoaren eta ondorengo minimoaren arteko errentagarritasun negatiboa.

Liburuxka honen helburu bakarra informazioa ematea da. Hortaz, ez du ordezkatzen plana kontratatu aurretik legez eman behar dizugun dokumentazioa. Plana kontratatu aurretik, irakurri arretaz araudia eta inbertsio-printzipioen deklarazioa. Eskura dituzu www.laboralkutxa.eus webgunean eta LABORAL Kutxaren edozein bulegotan. Erakunde gestorea: EUSKADIKO PENTSIOK EPSV. Erakunde gordailuzaina: CAJA LABORAL POPULAR, COOP. DE CRÉDITO.



Oficinas de LABORAL Kutxa
(lunes-viernes 08:30 a 14:30)



Telebanca
9 46 46 44 44



Banca On-line



Banca Móvil



Cajeros
LABORAL Kutxa